

EUSKARA-REN ALDE



Ill onen 21-an bildu ziran Donostian euskaldun euskal zaleak; eta batzarre artan adiarazi zuten, bearra zala, zerbait eragin gure izkuntz maiteak indarra artu dezan.

Zioten batzuek, mintzatzia euskaraz, nola echean ala kalean, eta danak, aberatz eta beartzuak, aurrak, gazteak eta emakumeak; itz batean, etorri zala orduba, beargendubela jakin, gure jatorreko izkuntza.

Egun artan bildu ziran euskaldunak, egondu ziranak chit argi, emanik arrazoi bearrak, igarririk danen biotzetan maitazun aundia izkuntzen gatik.

«Euskal-Erria-k» atsegin izandudu ikusirik gizon pilla arrek, guziak batian, maite dutela euskara, ta orla naidanian biotz biotzetik, egun artan aditu genuben bezela, euskera berialakoan ez da ilko ¡¡es!! euskara bizikoda denbora luzian.

Donostiarrak, donostiar jatorrekoak, danak dakigu euskaraz, ¡¡a!! bañangure Donostian gaur, gaur bezela, dira geienak arrotzak

.....

Esaten det berriz ere, batzarre artan itz egin zuten biziro eta ongi; danak dirade euskararen seme leyalak.

«Euskal-Erriak» danai ezkeintzen dizute bere laguntza eskasa eskasa, bai, bañan gogokoa, maitetazun guztizkoa!!

¡Bizi bedi euskara!

MENDIZ-MENDI.

